

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2021 Foru dekretua, uztailaren 20koa. Onespena ematea desgaitasuna duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeen autonomia bultzatzeko banakako laguntzak arautzeko oinarri orokorre

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren helburuetako bat da bere eskumen esparruan gizarte zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea. Hala, Arabako Foru Aldundiko 2019-2023 legegintzaldiko sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren zortzigarren xedapenak dekretu horren eginkizunak eta eskumenak ezartzen ditu, eta, hala, honako hauek dagozkie: hirugarren adina, desgaitasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta ordenamendu juridikoak ezartzen dizkion gainerakoak. Hala berean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde (GOFE) autonomia Gizarte Politiken Sailari atxikitzen dio eta honako helburu hauek ezartzen: gizarte zerbitzuei lotutako jarduerak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen Zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. Artikuluak arautzen duen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatzeko xedez, Arabako Foru Aldundiari eman dio laguntza teknikoan zerbitzua (laguntza produktuak) eta ingurune fisikora egokitzeko eskumena, dekretuaren I. eranskinaren 2.7.2.2 fitxan jasotzen denari jarraiki, berreskura ezin daitezkeen laguntza produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa kudeatzeko eskumena, dekretuaren I eranskinaren 3.3.1 fitxan jasotzen denari jarraiki, eta ohiko etxebizitzan zein ibilgailu pribatuetan egokitzapenak egitea helburu duten laguntza ekonomikoak kudeatzeko eskumena, dekretuaren I. eranskinaren 3.3.2 fitxan jasotzen denari jarraiki.

Beste alde batetik, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, besteak beste, helburu hauek ditu: aukera berdintasuna izateko eta tratu bera jasotzeko eskubidea bermatzea; desgaitasunen bat duten pertsonen beren eskubideak egiaz eta eraginkortasunez baliatzea, gainerako herritarren baldintza berdinetan, honako hauen bidez: autonomia pertsonala, irisgarritasun unibertsala, enplegurako sarbidea, gizarteratzea eta bizi-modu beregaina, eta orobat bermatuz desagerrarazi egiten direla diskriminazio mota guztiak, guztia ere bat etorritik Espainiako Konstituzioaren 9.2, 10., 14. eta 49. artikuluekin, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin eta Espainiak sinatutako tratatu eta akordioekin.

Arau horiek herri botereak behartu egiten dituzte ezinduei beren oinarrizko eskubideak benetan gauzatu ahal izateko beharrezko bitartekoak ematera.

Norbere jardueran mugak edo murrizketak dituzten pertsonen autonomia pertsonala prebenitzeko eta sustatzeko beharrezko ondorioz, laguntza-produktuak eta ingurunearen egokitzapenak aplikatuz, hain zuzen ere, desgaitasun egoerak eragindako mentsak arintzeko berariaz pentsatuta eta diseinatuta daudenak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea aspalditik hasi zen arautzen desgaitasuna duten pertsonentzako banakako laguntzen emakida.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundiak badarabil Diputatuen Kontseiluaren 20/2014 Dekretua, apirilaren 8koa, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde (GOFE) autonomoak desgaitasun egoera aitortuta duten pertsonentzako banakako laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onartzen dituena.

Foru Dekretu hori onartu zenetik sei urte baino gehiago igaro direlarik, dekretua berrikusi egin behar da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako araudi berrira egokitzeko.

Arautegi hori bat dator Emakume eta Gizonen Berdintasuna lortzeko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Emakumeen eta Gizonen benetako Berdintasuna lortzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakume eta gizonen berdintasun printzipioa betetzeari dagokionez. Dekretua prestatzerakoan, aurreko arauetz gain, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren (2016-2020) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak.

Xedapen hau bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen arautze egokiaren printzipioekin. Foru dekretu horren bidez onespena eman zitzaien xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei. Bestalde, aginduzko txosten guztiak eskatu dira.

Azkenik, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 16. artikulua Foru Gobernu Kontseiluari ematen dio Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuegoen esparruan dirulaguntzak emateko prozesua arautzen duten oinarriak onesteko eskumena.

Aurreko guztia dela eta, Arabako Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Desgaitasunen bat duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0-6 urte bitarteko adingabeen autonomia errazteko xedez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak esleitzen dituen banakako laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onartzea.

Bigarrena. Oinarriak ALHAOn argitara daitezen onartzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honek indargabetu egingo ditu foru dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen manu guztiak, eta bereziki Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 23ko 20/2014 Foru Dekretua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak desgaitasunen bat dutenentzako banakako laguntzak emateko araudia onartzen duena.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Desgaitasunen bat duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0-6 urte bitarteko adingabeen autonomia errazteko xedez, banakako laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Araudi honetan xedatutako laguntzen xedea da hartzaileen bizi kalitatea hobetzea, onuradunen egoeraren ziozko premiei erantzunda, haien autonomia sustatzeko, bai laguntza produkturen bat erabilera araubidean lagaz, bai laguntza produktu bat eskuratzeko ordaindu behar dituzten gastu guztiak edo batzuk konpentsatzeko laguntza ekonomiko bat emanez, ohiko etxebizitzan edo norbere ibilgailuan egokitzapenak egitea edo, garapenaren nahasmenduak dituzten 0 eta 6 urte arteko adingabeei dagokienez, laguntza espezializatua ematea.

2. artikulua. Printzipio orokorrak

Oinarri hauen xede diren laguntzen emakidak ondoko printzipioak bete beharko ditu:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko eragingarritasuna.
- Generoaren ikuspegia txertatzea.

3. artikulua. Izaera

1. Foru dekretu honek jorratzen dituen laguntzak honako hauetan dautza: behar diren laguntza produktuak erabilera araubidean lagatzea, edo aldizkakoak ez diren laguntza ekonomikoak ematea, banaka eta helburu jakin baterako eta dirulaguntza gisa emango direnak, laguntza-produktua eskuratu ahal izateko, lagatzerik ez dagoenean, ohiko etxebizitza edo ibilgailu pribatua egokitzeko, edo, garapenaren nahasmenduak dituzten 0 eta 6 urte arteko adingabeei dagokienez, laguntza espezializatua emateko.

2. Laguntza produktuak berreskuragarriak edo berreskuraezinak izan daitezke.

a) Produktu berreskuragarriak dira hainbat pertsonak behin eta berriro erabil ditzaketenak eta leku batetik bestera eramatean garraio kostuak besterik sortzen ez dituztenak.

b) Produktuen ezaugarriak direla eta, berreskuraezinak dira eskualdatu ezin daitezkeenak eta, hortaz, erabiltzaile bakar baten onurarako direnak, nahiz eta, aparteko kasuetan, hainbat pertsonak erabil ditzaketen aldi berean. Bizilekuak egokitzeko obra zibilak, laguntza produktu berreskuragarriak erabiltzeko egin beharreko obrak eta ibilgailuen egokitzapenak ere berreskuraezintzat joko dira.

3. Laguntza produktuak lagatzeko baleude, horixe izango da laguntzak emateko lehentasunezko era. Ildo horretatik, erabilera araubidean lagatzeko eskuragarri dagoen eta, teknikarien ustez, egokia den laguntza produkturen bat baliatzeari onuradunak uko egin edo muzin egiten badio, ezin izango du laguntza ekonomikorik jaso kontzeptu horren zioz, deialdi egokiaren babesean.

4. artikulua. Orientazioko txosten teknikoa

1. Dekretu honetan jasotzen diren pertsona desgaituentzako laguntzak eskuratzeko, beharrezkoa izango da alde zuzenetik Autonomia Pertsonaleko Zentroaren Informazio eta Aholkularitza Zerbitzuaren orientazioko txosten teknikoa lortu izana, eskatzen den laguntzari buruzkoa.

2. Txostenak ezin izango du 3 urtetik gorako antzintasuna izan, eta balioa galduko du desgaitasunaren aitorpena eta kalifikazioa berrikusi edo aldatu bada edo desgaitasun ziurtagiriak indarra galdu badu.

3. Autonomia Pertsonaleko Zentroaren Informazio eta Aholkularitza Zerbitzuak egindako orientazioko txosten teknikoak, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

- Produktu teknikoak edo bitarteko egokiaren egokitzapena.
- Laguntza-produktu berreskuragarriari dagokienez, gainera, produktua lagapen modalitatean lor daitekeen jaso beharko da.

4. Desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzen laguntzeko banakako laguntzak arautzen dituen deialdi publikoan, ekitaldi bakoitzean argitaratzen denean, artikulua honetan araututako orientazioko txosten teknikoak lortu beharrik ez duten produktu berreskuraezinak adierazi ahal izango dira.

II. KAPITULUA. LAGUNTZA PRODUKTU BERRESKURAGARRIEN LAGAPENA

5. artikulua. Betekizunak

Laguntza produktu berreskuragarriak lagatzeko zerbitzuari heldu ahal izateko, eskatzaileak, eskaera egiten duen unean, ALHAOn argitaratzen den eta pertsona desgaituen autonomia sustatzeko banakako laguntzak arautzen dituzten dirulaguntzen azken deialdi publikoan produktu bakoitzeko zehaztu diren betekizun orokor eta zehatzak bete beharko ditu eta hala egiaztatatu beharko du.

Era berean, ezingo da laguntza produktu baten lagapena lortu edo laguntza produktu bat eskuratzeko laguntza ekonomikorik eskuratu, kontzeptu beragatik, ALHAOn argitaratzen den eta desgaitasuna duten pertsonen autonomia ahalbidetzeko banakako laguntzak arautzen dituen azken deialdi publikoan produktu bakoitzeko zehazten diren epeetan, eskaera egiten den unean.

6. artikulua. Eskabidea

Produktu berreskuragarriak lagatzeko prozedura interesdunak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak, tutoreak, legezko zaintza edo harrera duenak eskatuta hasiko da, eta horretarako ezartzen den eredu estandarizatuan formalizatuko da.

Eskaerak toki hauetan aurkeztu behar dira:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua jasotzen dituen gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua dioenari jarraiki, nahitaez aurkeztu beharko dute era telematikoa, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/registro-electronico-comun-ifbs>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoaren bidez, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez bete beharreko jarduera profesional batean dihardutenek eta jarduera horren egikaritzan egiten dituzten izapidetan, eta administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdunik ordezkatzeko dutenak.

7. artikulua. Izapidetzea

1. Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak dauka prozeduraren izapidetzea bideratzeko eskumena.

2. Organo horrek ofizios egingo ditu eskatzaileek aurkeztutako datuak argitzeko, zehazteko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

3. Eskatzaileei eskatu ahal izango zaie, prozeduraren edozein unetan, beharrezkoak diren datu eta agiri guztiak aurkez ditzaten.

8. artikulua. Ebazpena

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzendari-kudeatzaileak laguntza produktuen lagapena onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du.

2. Laguntza emateko ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, eta, une horretan produktua eskuragarri badago, produktua lagatzeko agiria erantsiko zaio. Ebazpenean, laguntza produktua emateko epea eta modua adieraziko dira. Epea igarotzen bada eskubidea baliatu ezean, eskubideari uko egin zaiola ulertuko da, eta aurreko 3.3. artikuluan jasotako ondorioak sortuko dira.

3. Emakida ebazpenean, lagapenagatik ordaindu beharreko prezio publikoa adieraziko da, eta unean-unean indarrean dagoen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoen araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da.

4. Laguntza produkturik ez badago, eskatzailea itxarote zerrenda batean inskribatuko da. Itxarote zerrenda hori antolatzeke irizpidea eskabidearen data izango da, eta eskatzaileak berak erabaki beharko du laguntza baliatzen duen lagatzeko artikulua erabilgarri duela jakinarazi arte.

9. artikulua. Laguntza produktu berreskuragarriak mantentzea eta erabilera araubidea

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar dena egingo du laguntza produktu berreskuragarriak erabiltzeko moduan emateko onuradunei.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak laguntza produktuaren erabilera egokiaren jarraipena eta egiaztapena egin ahal izango du, eta, horretarako, egokitzat jotzen dituen etxeko jarduerak eta bisitak egin ahal izango ditu.

3. Erabiltzailearen konturakoak izango dira produktuaren ohiko erabilerak edo erabilera okerrak eragindako funtzionamendu-matxurak konpontzeko gastuak, bai eta aparatuak mantentzeko ohiko gastuak (bateriak, gurpilak edo, erabileraren erabileraz, higadura izan dezaketen beste elementu batzuk ordeztzea) ere. Erabiltzaileak lagapen epea amaitzen denean edo itzulketara egin behar denean, administrazio lagatzailearen esku utzi beharko du laguntza produktua, behar bezala erabiltzeko moduan.

4. Berreskura daitezkeen laguntza produktuak ezin izango dira Arabako Lurralde Historikotik edo, hala badagokio, Trebiñuko barrendegitik kanpo modu iraunkorrean atera. Behar izanez gero, pertsona erabiltzaileak aldeztatik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berariazko baimena izan beharko du. Edozein kasutan ere, laguntza produktua eman zeneko herrian bertan itzuliko da.

10. artikulua. Emakida iraungitzeko arrazoiak

Laguntza-produktuen lagapena honako arrazoi hauetakoren batengatik azkenduko da:

- a) Erabiltzaileak edo haren ordezkariak borondatez itzultzen duelako.
- b) Produktua zaharkituta geratu den eguna iristen delako; data hori emakida ebazpenean adieraziko da.
- c) Edozein arrazoi dela kausa, erabiltzaileak produktua behar ez duelako edo laga zitzaion helburua betetzeko erabiltzen ez duelako.
- d) Ezarritako prezio publikoa sei hilabetez jarraian ordaindu ez delako.
- e) Erabiltzailea egoitza edo zentroren batean sartu delako, eta zentroak berak laguntza produktua eskaintzen dio.
- f) Bizilekuz aldatu delako Arabako Lurralde Historikotik kanpo edo, hala badagokio, Trebiñuko barrendegitik kanpo.
- g) Laguntza produktuaren mantentze lan egokirik egin ez delako, gaizki erabili delako edo erabiltzailea ez den beste pertsona batek erabili duelako.
- h) Erabiltzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko teknikariek produktuaren erabilera gainbegiratzeari uko egiten diolako.
- i) Zerbitzura baliatzeko zeinahi baldintza galdu delako.

11. artikulua. Laguntza produktua itzultzea

1. Produktuaren lagapena amaitutakoan edo produktua itzultzea dagokionean, produktua zaharkituta geratu bada izan ezik, erabiltzeko baldintza egokietan itzuli beharko da.

2. Erabiltzaileak edo haren ordezkariak laguntza produktuaren itzulketa eragozten edo atzeratzen badute, produktua berreskuratzeko beharrezkoak diren jarduketan kostua jasalarazi ahal izango zaio erabiltzaileari, bai eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak epe barruan ez itzultzeagatik jasandako ondorioena ere, prozedura egokia izapidetu ondoren.

3. Produktua baldintza egokietan itzultzen ez bada, eta konpondu, beste batez ordeztu edo antzeko ezaugarriak dituen besteren bat birjarri behar bada, konponketa edo birjarpen kostua erabiltzaileari edo haren ordezkariari jasalarazi ahalko zaio, prozedura egokia izapidetu ondoren.

III. KAPITULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK**I. ATALA. ARAU OROKORRAK****12. artikulua. Urteko deialdi publikoa**

Urtero ekitaldi bakoitzeko dirulaguntzen deialdi publikoa onartuko da. Deialdian, araudi honetan ezarritako guztia ez ezik, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen duena ere jasoko da, testu honetan arautu ez bada.

Urteko deialdiek Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa) eta Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planak (2016-2020) xedatutako alderdiak jasoko dituzte, eta une oro genero ikuspegia kontuan hartuta kudeatuko dira.

13. artikulua. Onuradunek bete beharreko betekizunak

1. Funts publikoak eskuratzen dituen izango da dirulaguntzaren onuraduna, eta berak gauzatu behar du dirulaguntza eskuratzeko arrazoï moduan aurkeztu duen jarduera edo bera egon behar da emakida eskuratzeko bidezko egiten duen egoeran.

Artikulu honetan ezartzen diren betekizunak betetzen dituzten adingabeentzako laguntzen onuradunak hauek izango dira: gurasoak edo adingabeen babesaren arloko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera dela bide adingabearen ardura hartu duten pertsonak, berarekin bizi badira.

2. Laguntza hauen onuradun izan nahi duten pertsonak Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak 12. artikuluan ezartzen dituen betekizun orokorrak bete behar dituzte. Horrez gainera, araudi honetan eta urteko deialdian zehazten diren betekizunak eta inguruabarrak ere bete beharko dituzte, deialdia egiten den unean.

3. Onuradunaren izaera aitortzeko eta laguntza zer ehunekotan aitortuko zaion zehazteko, kontuan hartuko dira urtero deialdietan familia unitatearentzat ezartzen diren muga ekonomikoak.

4. Ezin daitezke onuradun izan eskatzen den laguntzaren helburu berdinari heltzeko Gizarte Zerbitzuen Sailaren edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren aurrekontuetatik prestazio edo zerbitzuren bat jasotzen dutenak.

II. ATALA. LAGUNTZEN SAILKAPENA**14. artikulua. Laguntza motak**

Banako laguntza ekonomikoak eman ahalko dira honako arlo hauetan:

a) Etxebizitzak egokitzea:

- oztopo arkitektonikoak kentzea.
- etxebizitzaren egokitzapen funtzionala.

b) Ibilgailuak egokitzea.

c) Laguntza produktuak.

Gizarte Zerbitzuen Legearen eta Dekretu honen ondorioetarako, ondokoak hartuko dira laguntza produktutzat: autonomiaren mugapenak prebenitzeko, konpentsatzeko, arintzeko edo kentzeko produktu, ekipamendu edo sistema tekniko oro, bereziki fabrikatzen direnak edo merkatuan daudenak.

d) Laguntza espezializatua.

Laguntza espezializatuen xedea da 0-6 urte artekoen arreta goiztiarrak eragiten dituen gastuak (guztiak edo horien zati bat) ordaintzea, edo aldundiaren eskumeneko kasuetan, arreta zerbitzu espezializatueta ematea, hain zuzen ere txosten teknikoan arreta eman behar dela finkatu eta zerbitzu publikoetan horretarako aukerarik ez dagoen kasuetan.

e) Laguntza bereziak eta laguntza osagarriak.

Aparteko kasu batzuetan, aurreko kapitulueta ezartzen eta tipifikatzen ez diren ekintzak edo laguntza bereziak ere finantzatu ahalko dira, aldez aurretik, aldeko txosten teknikoa jasota, eskatzailearen arreta betetzeko onuragarritzat jotzen badira.

Era berean, laguntza berreskuragarriak erabiltzeko ezinbestekoak diren eta urtean urteko deialdian ezartzen den zenbatekoa gainditzen duten egokitzapenak finantzatu ahal izango dira, laguntza osagarri moduan.

15. artikulua. Laguntza produktu berreskuragarriak itzultzea

Produktu berreskuragarriak erosteko laguntzak ematen direnean, laguntza emateko ebaizpenean laguntza produktua itzultzeko beharra ezarri ahalko da, beharrezko erabilera aldia amaitzen denean edo, produktua zaharkituta geratzen delako, ebazpenean zehazten den data heltzen denean. Hala:

– Emandako dirulaguntzak eskuratutako laguntza produktuaren kostu osoa estaltzen badu, produktua itzultzeko eskatuko da.

– Ematen den laguntzaren zenbatekoa laguntza produktuaren benetako kostuaren ehuneko 50 eta ehuneko 100 arteko tartean badago, foru administrazioak itzultzeko eskatu ahal izango du, laguntza produktua erosten den egunetik urtean-urtean ehuneko 20ko murrizketaren ziozko konpentsazio ekonomikoa aplikatuz, laguntza lortzeko justifikatutako produktuaren benetako kostuaren eta hura finantzatzeko jasotako diru laguntza publikoen guztizko zenbatekoaren (erabiltzailearen ekarpena) arteko aldeari dagokionez.

III. ATALA. PROZEDURA ARAUAK

16. artikulua. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntza hauek lehia askean emango dira; funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztenen artean, betiere urteko deialdian ezartzen diren betekizunak betetzen badira, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte edo, bestela, deialdian ezarritako epea amaitzen den arte.

17. artikulua. Eskabideak aurkeztea

1. Dekretu honetan arautzen diren laguntzen eskaerak urteko deialdian onartzen den eredu egin behar dira, eta eskaerarekin batera, eskatzen den dokumentazio osagarria aurkeztu beharko da.

Eskabide-eredua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gasteizko bulegoetan emango da. Halaber, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak era telematikoa eman ahal izango dizkie eredu horiek hala eskatzen duten pertsona guztiei, eta eskuragarri jarriko ditu <https://web.araba.eus/eu/gizarte-zerbitzuak> webgunean.

Eskabideak toki hauetan aurkeztu behar dira:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorra.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua jasotzen dituen gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua dioenari jarraiki, nahitaez aurkeztu beharko dute era telematikoa, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/registro-electronico-comun-ifbs>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoaren bidez, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez bete beharreko jardura profesional batean dihardutenek eta jardura horren egikaritzan egiten dituzten izapideetan, eta administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdunik ordezkatzeko dutenak.

2. Eskaerak aurkezteko epea urteko dirulaguntzen deialdia argitaratzen den egunaren hurrengoan hasiko da eta deialdian ezartzen den egunean amaituko da.

3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatu egingo du epe barruan eta behar bezala aurkeztutako eskaerak osorik dauden eta behar diren agiri guztiak dituzten. Hala ez bada, eskaera aurkeztu duenari errekerimendua egingo dio, falta diren datuak eta agiriak hamar egun baliodunetan aurkez ditzala, eta ohartaraziko dio eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin duela joko dela ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 68. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

4. Eskaeran nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza. Eskatzailearen arduraz izango da datuetan gertatzen diren aldaketa guztien berri ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, batik bat, eskatzailearen egoitzari buruzko datuetan gertatzen diren aldaketek berri.

5. Laguntza eskaera aurkezteak badakar araudi honetan eta kasuan kasuko deialdiko oinarri berezietan ezartzen dena formalki eta berariaz onartzea.

6. Laguntza eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera izapidetu eta ebatziko dira, harik eta kreditu erabilgarria agortu arte. Egoera hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen atarian argitaratuko da.

7. Aurkeztutako hurrenkerat hartuko da eskaerak eskatutako dokumentazio guztia biltzen duteneko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan arabera antzemandako akatsak zuzendu ondoren.

18. artikulua. Deialdia izapidetzea eta ebaztea

1. Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariorde eta Teknikoak dauka prozeduraren izapidetzea egiteko eskumena. Azaroaren 17ko 11/2016 Foru Arauak 22. artikuluan ezartzen duenaren arabera, instrukzio organoak ofizios egingo ditu ebazpenerako behar diren datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak. Honako eskumen hauek edukiko ditu, batik bat:

a) Beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak ebaztea eta dirulaguntzari buruzko arauetan eskatzen direnak eskatzea.

b) Ebazpen proposamena aurkeztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde organo esku-dunari, ondo arrazoituta.

2. Zenbatekoa dela eta, ebazpena emateko eskumena daukan Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde organoak edukiko du araudi honen babesean izapidetzen diren espedienteak ebazteko eskumena, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan.

3. Eskatzaileari ez zaio entzunaldiko izapiderik eskainiko, ebazpenean eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko.

4. Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek, gutxienez, argitu beharko ditu:

a) Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa eta justifikatu beharreko zenbatekoa.

c) Itzulketa, hala badagokio.

5. Dena delako deialdian, laguntza jasotzeko ezartzen diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar berez eta besterik gabe laguntza eskuratzeko eskubidea.

6. Deialdi baten babespean laguntza bat emateak ez dakar, berez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jardueretarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

19. artikulua. Txosten bidezko proposamenak

Honako laguntza hauek eskuratzeko ezarritako baldintza orokor eta bereziak betetzen dituzten eskaera guztien aldeko txostena eman beharko dute, nahitaez, Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak helburu horretarako izendatutako teknikariek, bidezkoa den ebazpena hartu baino lehenago. Txosten horietan, ondoko alderdi hauek adierazi beharko dira:

a) Eskatzaileak daukan ezintasun mota eta maila.

b) Eskatutako laguntzaren beharra, egokitasuna eta jatorria, pertsonaren desgaitasun motaren eta mailaren arabera, eta haren egokitasuna, orientazioko txosten teknikoan adierazitakoaren arabera.

c) Arreta goiztiarrerako eskaerei gagozkiela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Balorazio Unitateko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak aginduko du txostena, eta haurren ezaugarri biologikoetara eta behar espezifikotara egokitu beharko da.

d) Deialdian eskatzen diren baldintzak betetzeko egokitasuna.

e) Beste erakunde edo/eta entitate pribatu batzuetatik jasotako laguntzak.

f) Aurrekontuan edo fakturan jasotako zenbatekoa eta diruz lagun daitekeen zenbatekoa.

g) Diruzko sarreraren eta familia unitatearen araberrako ehunekoa eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

h) Ordaintzeko era.

i) Eskatutako laguntza ukatzeko proposamenaren arrazoia, hala badagokio.

20. artikulua. Eskabideak ebazteko eta jakinarazteko epeak

1. Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak, eskatutako agiri guztiak dituztenak, aurkeztu diren egunaren hurrengo egunetik hiru hilabete igaro baino lehen ebatzi behar dira.

2. Ebazteko gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, dirulaguntza ukatu egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 a) artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5 artikulua ezarritakoari jarraiki.

3. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikulutik 46. artikulura arautzen duenarekin bat etorritik.

4. Ebazpena errekurritu ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulutik 126. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera, errekurritu beharreko ebazpena eman duen organoaren arabera.

21. artikulua. Laguntza ukatzeko arrazoiak

Urteko deialdian ezartzen direnez gain, honako hauek izango dira eskatutako dirulaguntza ukatzeko arrazoiak:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintza orokor edo berezietako bat edo dekretu honetan, urteko deialdian eta antolamendu juridikoan ezarritakoetako bat ez betetzea.

b) Eskabidean edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioan, daturen bat egiazkoa ez dela egiaztatzea.

c) Laguntzak emateko aurrekontuan ezarritako kreditua agortzea.

d) Urteko deialdian adierazten den berritze epearen barruan, laguntza mota bererako dirulaguntza jaso izana, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

e) Aurreko d) letran jasotzen den epearen barruan, eskatzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaini dion laguntza produktu berreskuragarria ez onartzea, nahiz eta, teknikarien iritziz, egokia izan eta dekretu honen 3.3 artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

f) Eskatzaileak eta, hala badagokio, familia unitateko gainerako pertsonak ezarritako eta beren gain hartutako edozein betebeharrak ez betetzea.

g) Oinarri hauetan jasotakoez bestelako kontzeptuetarako dirulaguntza eskatzea, 14.e) artikuluan jasotakoa izan ezik, edo urteko deialdi bakoitzean agertzen diren katalogoetan jasota ez dauden laguntzak lortzeko.

h) Dirulaguntza eskatzea orientazioko txosten teknikoarekin bat ez datorren laguntza bat eskuratzeko edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Balorazio Unitate Teknikoko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak agindutakoarekin bat ez datorren laguntza espezializatu bat eskuratzeko.

22. artikulua. Ebazpena aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako batean edozein aldaketa gertatuz gero eta beste erakunde publiko edo pribatu batetik helburu berarekin laguntza edo dirulaguntzaren bat jasoz gero, erabaki ahal izango da dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eta hura itzuli behar izatea.

*IV. ATALA. FINANTZAKETA ETA ORDAINKETA***23. artikulua. Dirulaguntzak finantzatzea eta haien zenbatekoa zehaztea. Laguntzak zehazteko irizpideak**

1. Urteko deialdian zehaztuko dira deitzen diren laguntzetan erabil daitekeen gehieneko zenbateko osoa eta laguntzak aurrekontuko zer partidari egotziko zaizkion, bai eta zenbateko gehigarria ere (ehunekoa kasuan kasuko deialdian zehaztuko da).

2. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean ematen diren laguntzen guztirako kopurua ezin da izan aurrekontuan horretarako ezarritakoa baino gehiago.

3. Eskatzaile bakoitzari eman dakiokkeen laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du inoiz gainditu laguntzaren benetako kostua edo, hala badagokio, deialdi bakoitzean ezartzen den kontzeptuagatik eman beharreko gehieneko zenbatekoa. Gehieneko prezio hori ezarri ez bada, eman beharreko gehieneko kopuruek ezingo dute inola ere gainditu eskatutakoaren baliokideak diren produktuen merkatuko batez besteko prezioa.

4. Gehieneko zenbateko hori, garapen-nahasmenduak dituzten 0-6 urte arteko adingabeentzako laguntzen kasuan izan ezik, laguntzaren onuraduna kide den familia unitatearen errentaren arabera haztatuko da. Familia unitatea eta horren errenta foru dekretu honetan eta urteko deialdian jasotakoaren arabera zehaztuko dira.

5. Urtero-urtero, dagokion deialdian, laguntza mota bakoitzeko eman daitekeen gehieneko eta gutxieneko zenbatekoa zehaztuko da.

24. artikulua. Ordaintzeko modua eta justifikazioa

1. Emandako zenbatekoa ordaindu aurretik, enpresa hornitzailearen faktura aurkeztu eta hori ordaindu izana egiaztatu beharko da, hartze agiri, banku agiriaren kopia edo enpresa hornitzailearen sinadura eta zigilua dituen faktura dela bitarte. Fakturaren nahiz ordainketa egiaztagirien jatorrizkoak aurkeztu beharko dira.

Iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legeak (EAO, 2012ko urriaren 30ekoa) 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, ezingo dira eskudirutan ordaindu indarreko araudian zehaztutako balio bereko edo handiagoko edo atzerriko dirutan haren kontrabaliao duten eragiketak. Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, eta ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea zatika egin bada, batu egingo dira egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Izapidetze elektronikoa aukeratuz gero, justifikazio-dokumentazioarekin batera, aurkeztutako informazioaren eta dokumentazioaren benetakotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

2. Gastua frogatzen duen faktura eta ordainketaren egiaztagiria urtean urteko deialdian ezartzen den epean aurkeztu beharko dira.

Hala ere, kontzeptu bakoitzagatik frogatutako gastua dagokion ebazpenetan onartutako kopurua baino txikiagoa izatekotan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ordaindu beharreko kopurua izango da azkenean justifikatutako zenbatekoari laguntza zehazteko oinarri gisa erabili zen ehunekoa aplikatzearen emaitza. Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariorde eta Teknikoak onuradunari jakinaraziko dizkio onartutako zenbatekoaren murrizketa eta horren arrazoia.

3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak jatorrizko faktura eta ordainketa egiaztagiriarekin batera aurkeztu diren fotokopiak konpultatu ahal izango ditu. Era berean, aipatutako dokumentuen kopia kautoak egin ahal izango ditu, era elektronikoan aurkezteko.

Beste alde batetik, zerga araudia betetzen ez duten fakturak eta ordainagiriak ere ez dira onartuko gastu frogagiritzat.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, horien formatua Factura-e eta Ef4ktur estandarren edo ezartzen diren beste batzuen arabera izango da. Modu elektronikoan sinatutako beste edozein dokumentu aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaile kualifikatuen konfiantza zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<https://sede.serviciosmin.gob.es/Prestadores/Paginas/Inicio.aspx>).

4. Salbuespen gisa, hasieran emandako laguntzaren konturako aurrerakina baimendu ahal izango da, urteko deialdian ezarritako baldintzetan.

5. Laguntzak onuradunari edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariari ordainduko zaizkio. Laguntza ekonomikoa aitortzen denean, onuradunak edo haren legezko ordezkariak zuzeneko ordainketa eskatu ahal izango dio enpresa hornitzaileari, urteko deialdi bakoitzean ezartzen den moduan. Salbuespen gisa, eta Batzorde Teknikoaren aldeko txostenaren bidez, zuzeneko ordainketa egiteko baimena emango da.

6. Aipatutako epea amaitu eta dokumentazioa aurkeztu ez bada, ordainketa kredituak balio-gabetuko dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera bidezkoak diren gainerako erantzukizun eta zehapenei kalterik egin gabe.

25. artikulua. Laguntzak pilotzea eta bateraezintasunen araubidea

1. Ematen den banako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da izan, bakarrik zein Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako sarrerekin bat eginda, onuradunak edo onuradunarentzat eskuratutako laguntzaren kostua baino handiagoa.

2. Laguntza hauen onuradun izateko eskubidea duten bizikideen kasuan, bateraezina izango da produktu bererako edo antzeko prestazioetarako laguntza ekonomikoa eskatzea, erabilera pertsonalekoa izan ezean. Kasu horretan, egin diren eskabideak aztertu ondoren, laguntza bakarra emango da, eta zenbatekorik handiena dagokion pertsonaren eskaera aintzat hartuko da.

3. Urteko deialdietan, osagarritzat jotako laguntzak ezarriko dira, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kasu berberetarako ezarritakoen aldean.

26. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Dekretu honetan, urteko deialdietan, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako kasuetan jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

Onartutako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluan ezartzen duenarekin bat etorritik egingo da.

IV. KAPITULUA. BETEBEHARRAK

27. artikulua. Onuradunen betebeharrak

1. Foru dekretu honen babespean emandako laguntzen onuradun diren pertsonak behartuta egongo dira honako hauek betetzera, hala badagokio, urteko deialdian ezartzen direnez gain:

a) Dirulaguntza ematen duen erakundearen egiaztatze ekintzak onartu beharko ditu, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ekonomia eta finantza kontrolerako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo bestelako erakunde eskudunen legerian aurreikusitako gainerakoak ere, eta administrazio horiek eskatzen dioten dokumentazio guztia eskuetaratatu beharko die.

b) Espainiako zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik helburu bererako jasotako dirulaguntzen edo laguntzen berri eman beharko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketan berri ere.

c) Gizarte Zerbitzuen Sailari eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena emango die eskatzailearen datu pertsonalak eta, behar den kasuetan, familia unitateko beste pertsona guztien datuak helburu hauetarako erabil daitezzen, datu pertsonalen babesaren legerian ezartzen den bezala: estatistikak egiteko, zientzia ikerketarako eta zabalkunderako, eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berezko eginkizunetarako.

d) Onuradunak laguntza produktu baten erabileraren lagapena jaso badu, emateko arrazoia desagertzen denean hura itzuli eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak adierazten duen lekuan utzi beharko du; gauza bera egin behar da laguntza produktua emateko ebazpenean berreskuragarria dela ezarri bada.

e) Dirulaguntzaren xede izan den edo laga den laguntza produktua zaindu eta erabiltzeko modu onean jagon beharko du. Horretarako, fabrikatzaileak jarraibideetan azaltzen duen bezala eta foru zerbitzu eskudunak emandako aholkuei jaramon eginez erabili behar da.

f) Onuradunak laguntza produktu bat erabiltzeko lagapena jaso badu edo laguntza produktu berreskuragarri bat erosteko zenbateko jakin bat eman bazaio, ohiko mantentze lanek sortzen dituzten gastuak ordaindu beharko ditu, foru dekretu honen 9. artikulua ezarri duen legez.

g) Araudi honek eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen dituzten gainerako guztiak.

2. Eskatzaileak edo bere familia unitateko kideren batek ezarritako betebeharren bat betetzen ez badu, prestazioa jasotzeko eskubidea galduko du eta lagapenean hartutako laguntza produktua itzuli edo jasotako diruzko kopuruak itzuli beharko ditu.

28. artikulua. Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahal izango ditu, kasu bakoitzean egokitzat jotzen duen moduan, laguntzaren zertarakoa eta erabilera egokia ziurtatzeko.

2. Erantzukizunpean erortzeari kalterik egin gabe, datuak faltsutu edo ezkutatu, bai eta laguntzak ematerakoan ezarritakoaz bestelako helburuetarako erabili edo kontrol jarduerak eragotzi edo galaraziz gero, laguntza galdu ahalko da, eta, ordaindu egin bada, dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko zaio Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari, baita berandutze interesa ere, 11/2016 Foru Arauak xedatutakoarekin bat etorritik. Onuradunak bidegabe jasotako zenbatekoa itzultzen ez badu edo berandutzen bada, premiamendu bidez eskatu ahal izango da.

V. KAPITULUA

29. artikulua. Errekurtsoak

Araudi honen babesean emandako ebazpenak errekurritu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulutik 126. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera, errekurritu beharreko ebazpena eman duen organoaren arabera.

30. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak aldundi honen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ebartziko ditu.

31. artikulua. Datuen babesa

Indarrean dagoen datu pertsonalen babesari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak tratatuko ditu deialdi honek arautzen dituen laguntzak jasotzeko aurkeztzen diren eskaeretakoko datu pertsonalak eta baita laguntzak kudeatzeko, harremanak izateko eta komunikatzeko eta erakunde honi eskatutako edo erakunde honek emandako zerbitzuak kudeatzeko interesdunekin harremanetan jarrita eskuratzen diren guztiak ere. Datuak tratatu ahal izateko, interesdunak baimena eman behar du edo foru erakundeak bere berezko funtzioak betetzeko erabili behar ditu bere eskumenen esparruan, edo bi baldintza horiek bete behar dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei helaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuak ez zaizkie estatutik kanpoko inori helaraziko. Babes bereziko datuak dira.

Norberaren datuak ikusi, aldatu eta ezabatu daiteke, eta baita datuon gaineko beste eskubide batzuk baliatu ere, honako webgune honetan eskuragarri dagoen informazio osagarrian ikus daitezkeen moduan: <https://web.araba.eus/eu/gizarte-zerbitzuak/datuen-babesa>, edo idazkia bidal daiteke, erabiltzaileak NANaren bidez identifikatu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera, San Prudentzio kalea 30. 01005 Gasteiz, edo posta elektronikoa bidal dakioke datuen babesarako gure ordezkariari honako helbide honetara: dpd_ifbs@araba.eus.

32. artikulua. Ordezko araudi aplikagarria

Foru dekretu honetan xedatzen dena honako hauetan ezartzen denari loturik dago: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arautegia onesten duena; 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontuen Araubide Ekonomikoarena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; deialdia egiten denean indarrean dagoen aurrekontuen antolamenduari buruzko foru araua, eta aplikatu daitezkeen gainerako arauak.